



GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA
OSASUN ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA
2020ko DEIALDIA

26/2020 EBAZPENA, otsailaren 25ekoa

2020-06-23

BIOLOGIA

KALIFIKAZIO EPAIMAHAIA: 3



DEITURAK

IZENA

NANa/ANTa

1. Erantzun ondoko galderak:

1.1 Mitosia: azaldu zer den eta zein fasetan gertatzen den. (1 p) Zer alde dago meiosiarekin eta zer garrantzi du izaki bizidunen eboluzioan? (0,5 p)

1.2 Zer da fotosintesia? Landare baten zein lekutan eta zein organulutan ekoizten da? Zer osagai behar dira eta zein lortzen dira? (0,5 p)

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA
OSASUN ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA
2020ko DEIALDIA

26/2020 EBAZPENA, otsailaren 25ekoa

2020-06-23

BIOLOGIA

- 2. Zer funtzio betetzen dute mikroorganismoek ziklo biogeokimikoetan? (0,5 p).
Jarri mikroorganismoen erabilera industrialaren adibide bat. (0,5 p) Birusen
egitura deskribatzen du. (0,5 p)**
- 3. Emakume batek bere X kromosometako batean gene hilgarri atzerakoi bat
darama (a) eta bestean dominante arrunta (A). Gizon normal batekin
gurutzatzen bada, egin eskema bat azaltzeko bikote honen ondorengotza
nolakoa izanen litzatekeen. Seme-alaben zer ehuneko biziko litzateke?
Arrazoitu datu hau. (1,5 p)**

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA
OSASUN ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA
2020ko DEIALDIA

26/2020 EBAZPENA, otsailaren 25ekoa

2020-06-23

BIOLOGIA

4. Erantzun ondoko galderak:

4.1 Zein izen dute giza zirkulazio-sistemako hodi mota ezberdinek? Nola esaten zaie odola sartzen deneko bihotz-barrunbee? (0,5)

4.2 Azaldu zer den eta nola sortzen den sinapsi bat. (0,7 p)

4.3 Zer urin sortzen da ahoan? Zein da beren funtzioa? Digestio-aparatuaren zein lekutan sortzen da bereziki mantenugaien xurgapena? (0,6)

4.4 Izenda itzazu naturan ematen diren hiru arnasketa mota ezberdin, eta zein organismok egiten dituen. (0,6)

4.5 Egin ezazu giza iraitz-aparatuaren eskema bat, haren osagaiak aipatuz eta seinalatuz. Adierazi iraitz-aparatuaren funtzioa. (0,6)

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA
OSASUN ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA
2020ko DEIALDIA

26/2020 EBAZPENA, otsailaren 25ekoa

2020-06-23

BIOLOGIA

5. Aukeratu aukera zuzena gai bakoitzerako (2 p) (Ez da deskontatzen okerreko erantzunengatik).

5.1. Muskuluen uzkurduran bi proteina daude:

- a) Azetilkolina eta mielina
- b) Azetilkolina eta miosina
- c) Aktina eta miosina

5.2. Zelulan proteinak sintetizatzeko prozesua honako hau da:

- a) Erreplikazioa
- b) Itzulpena
- c) Transkripzioa

5.3. ATPak zeluletan duen funtzioa honako hau da:

- a) Energia biltegitratzea
- b) Gasen trukea erraztea
- c) Egitura mantentzea

5.4. Lipidoak, funtsean, honako hauek osatzen dituzte:

- a) Karbonoak eta hidrogenoak
- b) Karbonoak eta oxigenoak
- c) Karbonoak eta magnesioak

5.5. Erantzun immunitarioan parte hartzen dute:

- a) Plaketek
- b) Gatz mineralek
- c) Linfozitoek

5.6. Zelula prokarioto batek ez du...

- a) Mitokondriarik
- b) Nukleo bereizirik
- c) Bi erantzunak zuzenak dira

5.7. Loreak...

- a) Landareen organoak dira eta glukogenoa biltegitratzen dute
- b) Landareen organoak dira, landareei eusteko
- c) Landareak ugaltzeko organoak dira. Haziak sortzen dituzte

5.8. Xilema...

- a) Ehun eroalea da
- b) Hazkuntza-ehuna da
- c) Euste-ehuna da

5.9. Moluskuetan, zer da digestio-organoa?

- a) Gurion hipofisia
- b) Hepatopankrea
- c) Besikula pankreatikoa

5.10. DNAREN parte diren base nitrogenatuak dira:

- a) Adenina, zitosina eta guanina
- b) Adenina, zitosina eta uraziloa
- c) Zitosina, zitosina eta uraziloa